

2018 MAI. 22

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

IRTEERA

Zk. 619152

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓNIdazkaritza
Irteera : Z/18-02581
Data: 2018/05/17--13:50:29

Esp.kodea: 2018HLAP0003

Gaia: LURRALDE ANTOLAMENDUAREN
GIDALERROEN BERRIKUSPENA
Hasiera eguna: 2018/03/01

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrek, 2018ko maiatzaren 10an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

"EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUAREN 2018KO OTSAILAREN 20KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ HASIERAKO ONARPENA EMATEN BAITZAIO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN BERRIKUSPENARI BURUZKO DOKUMENTUARI.

2018ko otsailaren 28an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko otsailaren 20ko aginduaren bidez erabaki zen hasierako onarpena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren dokumentuari. Gidalerro horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren eta berrikuspenaren dokumentua jendaurrrean jartzea, partikularrek eta elkarte interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Aipatutako berrikuspenaren dokumentua aztertu ondoren, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik eta baita Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordearen diktamena ere, eta jarraian azaltzen dena kontutan izanik:

1.- Debagoienako eremu funtzionalari eta Arrasateri dagokionean, hainbat aipamen badaude dokumentuan zehar bere onuren eta ezaugarri berezien inguruan: eremu funtzionalaren kokapen estrategikoa lurraldearen erdigunean, hiri sendotasuna, unibertsitate eta ikerketa zentroak izatea, berrikuntza guneak/parke teknologikoak izatea, natur ondare aberatsa, hirigune historikoa izatea, e.a.

2.- Hala ere, dokumentuak ez du ezaugarri berezi horiek indartzeko ekimen eta helburu zehatzik finkatzen.

3.- Halaber, memorian bertan aipatzen den moduan, Debagoienako eremu funtzionalak populazio galera izaten jarraitzen du gaur egun, bai hiriburuetako eta kostaldeko eremuen kontura, bai gidalerroen irizpideen kontra. Bilakera demografiko horrek orain arte (eta Gipuzkoan batez ere) historikoki berez garatu izan den lurralde-antolamenduaren oreka apurtu dezakeela ere badiu, batez ere, joera gelditzeko neurriak hartzen ez bada.

4.- Diagnosia zuzena, garbia eta ukalezina bada ere (hau da, oreka berreskuratzeko neurriak hartu behar direla alegia), ekimenak proposatzerakoan alde batera uzten da hura, eta azken urteotako bilakera okerra areagotzera bideratutako ekimenekin jarraitzen da.

5.- Debagoieneko eremuaren kokapena guztiz zentrala denez gainera, oso nabarmena izan daiteke desoreka hori sustatzen jarraitzea, eragin handikoa. Horregatik, sakonago aztertu behar da litzateke egoera, eta agian, berariazko ezaugarri baliatu irtenbidetara aurkitzeko.

6.- Hau da, gidalerroetan oreka berreskuratzeko neurriak jaso behar dira litzateke Debagoiena eremuan jardura eta ekimen erakartzaileak ezartzea bultzatuz, ibilbidetara erraztuz, eta bere garapenean lagunduz.



Esp.kodea: 2018HLAP0003

Gaia: LURRALDE ANTOLAMENDUAREN
GIDALERROEN BERRIKUSPENA
Hasiera eguna: 2018/03/01

7.- Helburu hori lortzeko neurririk zuzenena, eta agian errazena, izan daiteke eremuak berak dituen balorak indartzeko eta nabarmentzea:

- Eremu funtzionalaren garrantzia eta kokapen estrategikoa nabarmentzea. Adibide gisa, Eusko Jaurlaritza edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren zenbait erakunde edo enpresa publikoren egoitza nagusiak bertan kokatzea ezinbestekoa da. Zentraltasuna ekimen horretan lagungarri izan daiteke gainera.
- Komunikazioak erraztea eta garraio publikoa sustatzea. Adibide gisa, Arrasate da EAE-n 20.000 biztanletik gorako herri bakarra tren-geltokirik ez duena. Eta Euskal Tren Sarearen linea garrantzitsuena Arrasatetik pasako da. Egoera hori ez da batere logikoa, eta lurralde antolamenduaren irizpide nagusietako lehen ikasgaietako baten aurka doa. Are gehiago, eta ikuspegi orokor batetik ikusita, Arrasaten geltokia egoteak EAE barneko mugimenduetan hobekuntza ekarriko lioke zerbitzuari berari, baliabide berdinekin maiztasunak handitzeko aukera eman baitezake (konexioak areagotuz alegia).
- Erakargarriak izan daitezkeen elementuak sustatzen laguntzea, bai ekonomia bultzatzeko, bai turismoa erakartzeko: hirigune historikoa, natur ondarea, parke teknologikoak, e.a.
- Parke Teknologikoen arloan aipamen berezi bat. Arrasateko Olandiano esparruan eratu zen Euskal Herriko lehen parke teknologikoa, hitz hori oraindik asmatu gabe zegoenean. Ute batzuk beranduago Garaia esparrua sustatu zen. Azken boladan une txarrak bizitzen ari da eta etorkizunari begira erakundeak lerrokatu egin behar dira esparruak aurrera egin dezan. Hau da, iragana aitortzeaz gain, etorkizuna bermatzeko neurriak hartu behar direla alegia. Hori horrela, gidalerroetan ere hiriburuetako parkeei ematen zaien adinako maila jaso beharko luke.
- Edonola ere, demografia berreskuratze lanetan bizitegi-kuantifikazioaren muga ezin da lurralde oreka lortzeko bidean oztopo bat izan. Gidalerroetan egindako kalkuluak, ordea, egun dagoen dinamikaren arabera egin dira (eremua jasaten ari den populazio murrizketaren arabera, alegia), eta ez horren aurka. Eta horrek, Debagoiena eta Debabarrenaren kasuan, etorkizuneko edozein hobekuntza mugatu dezake, zentzurik gabe, antolamenduaren oreka lortzeko helburuaren kontra doala ahaztu gabe.

8.- Bestalde, Forondako aireportuari dagokionez, Arrasatetik bat egiten da aipatu aireportuak, bai salerosgaienez, eta bai bidaiarientzat, duen garrantzia azpimarratzean, eta horren aitortza aldarrikatzean. Hori horrela, Euskal aireportu sisteman Forondari dagokion nazioartekotasun maila gidalerroetan jasota geratu beharko litzateke, zailtazarik egin ez dadin.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioa hartu du:

.- Hasiera batean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspen dokumentuaren inguruan alegazioak egitea, dokumentuan jarraian azaltzen diren alderdiak jaso daitezela eskatuz:

- 1.- Udalaitz mendiaren babes maila handitzea.



Esp.kodea: 2018HLAP0003

Gaia: LURRALDE ANTOLAMENDUAREN
GIDALERROEN BERRIKUSPENA
Hasiera eguna: 2018/03/01

2.- Debagoiena eremu funtzioanalaren garrantzia handitzea, erkidegoan duen kokapen estrategikoa nabarmentzeko. Horra hor erakundeen zenbait egoitza nagusi Arrasaten kokatzearena agertu behar duelaren eskaria.

3.- Euskal Tren Sareko linea berrian geltokia kokatzea Arrasaten (Debagoienan), lurralde oreka eta mugikortasuna bultzatu eta hobetzeko, alde batetik, eta garraio sistema bera hobetzeko aukera bezala, bestetik.

4.- Arrasateko Olandiano-Garaia parke teknologikoa hiriburuetakoen maila berean jartzea.

5.- Bizitegi-kuantifikaziotik Debagoiena eta Debabarrena salbuestea, edo bestela eremu horietan kopurua nabarmen handitzea, alderdi hori berreskuperapen demografikoaren oztopo inoiz eta inola izan ez dadin.

6.- Forondako aireportuari garrantzi handiago ematea.

Aipatutako akordioaren aurka, tramitezko ekintza bat denez, ez dagokio ohizko administrazio errekurtsorik, interesatuek egin nahi dituzten legezko beste ekintzen kalterik gabe.

Arrasate, 2018ko maiatzaren 15a



EUSKO JAURLARITZA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA
DONOSTI-SAN SEBASTIÁN, 1
01010 GASTEIZ

